



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUSEN
TALDEA
GARA**

A SAIOA
HAURREN KATEKESIA PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

1. Helburua

- Jesusek bere taldekide izateko banan-banan deitzen gaituela antzeman.

2. Edukiak

- KATEKESIA ALDERDIA. 2. helburua, "Jainkoa Aita sortzaile bezala, Jesus Semea gurekin eta gaur lagun egiten digun eta jardunean ari den Espiritua".
- HITZA ETA OTOIZA ALDERDIA. 1. helburua, "Oinarrizko otoitzak (gurutzearen seinalea) ikasi".
- ELKARTEA ALDERDIA. 1. helburua, "Katekesiko taldea, topagunea".
- BIHOTZ-BERRITZEA ALDERDIA. 1. helburua, "Jesusen jarraitzaile izaten ikasi".

3. Saioa

- Talde katekesirako saioa A parrokian.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saiaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

A SAIOA HAURREN KATEKESIA PARROKIAN



Motibazioa

- Jesusek bere taldeko kide izatera deitzen gaitu.



Azpimarrak

- Jesusek geure izenez ezagutzen gaitu.
- Jesusek bere ikasle izatera deitzen gaitu.
- Jesusek indarra ematen digu misiorako eta bakarrik egingo ez genituzkeen gauzak egiteko.



Idea nagusiak

- Apostoluei egindako deialdiari buruzko idazkia (**Mk 1, 16-18**) landuko dugu.
- **Jesusek aurrea hartzen du**, hurbildu egiten da, begiratu eta Jainkoak guretzat duen egitasmoan sartzea proposatzen digu, ez desberdinak edo besteak baino hobekak garelako, mezu berezia jakinarazi nahi digulako baizik.
- **Geure izenez deitzen gaitu**, (mutiko edo neskatoren izena), "zatoz eta jarraitu nire atzetik!".



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

"Jesusek, Galileako aintzira-bazterrean zehar zihoala, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak uretara botatzen, arrantzaleak baitziren.

Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

"Zure lehen Biblia", Giltza, pag 324.

Abestia / Ipuina / Bideoa

"Gurutzearen seinalea eta Hirutasunaren dantza" (Unai Quiros).

Egin klik
irudiaren
gainean bideoa
ikusteko



Jarduera

- Jesusen taldearen sarea josi.
- Gurutzearen seinalea.



Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Gurutzearen seinalea eta otoitza.
- "Gaur ikasitakoa ...".






Ezinbesteko lagungarriak

- Txartela taldekide bakoitzaren izenarekin eta boligrafoa.
- Fruta-sare edo eltxo-sare bana taldekideentzat eta beste bat erdian ipintzeko.
- Klip handiak (taldekide bakoitzarentzat bat).
- Jesusen irudia.
- Jainkoaren Hitza (txatal argitzailea), **Mk 1, 16-20**.
- Abestia.
- Otoitza.

Denbora hartu saioaren dinamika ulertzeko eta behar izango dugun guztia alde zuzenetik prestatzeko.



Saioarako gida

Katekistarentzat

Katekesiko lehen eguna da, elkartzeko eta taldea eratzen hasteko eguna. Ikuspuntu honetatik, saioa lau unetan banatuko dugu:

1. Unea. Agurra eta aurkezpena (15 min.). 1-4 urratsak
2. Unea. Gaiaren azalpena (15 min.). 5-7 urratsak.
3. Unea. Abestia (10 min.). 8-12 urratsak.
4. Unea. Egindakoa jaso eta laburtu (otoitza eta ikasi dudana. 10 min.). 12. urratsa.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Katekesian talde bat baino gehiago egonez gero, katekista bakoitza bete taldearekin batu dadila une hau egiteko. Saioari hasiera emateko, **“sarea josiko dugu”** dinamika burutuko dugu:



1. Urratsa. Zirkuluan jarriko gara eta bakoitzak bere izena esango du.



2. Urratsa. Katekistak txartel bat jarriko du ahoz behera neska-mutiko bakoitzaren aurrean (izenen bat errepikatzen bada, abizena ere idatzi). Zirkuluan jarri eta izenak esango ditugu.



3. Urratsa. Hiru kontatzeaz batera, haur bakoitzak aurrean duen txartela har dezala, eta hitzik esan gabe bertan idatzita dagoen izena dagokion pertsona seinalatu.



4. Urratsa. Erantzunak ondo dauden ikusi. Norbaitek huts egin badu, berriz errepikatuko dugu ariketa. (Dinamika behin eta berriz egin, izen guztiak ikasi arte).



Bigarren unea. Gaiaren azalpena



5. Urratsa. Zirkuluan jarrita jarraituko dugu (lurrean edo aulkietan eserita). Katekistak sarea eta Jesusen irudia jarriko ditu erdian, eta lurrean sakabanatuta, taldekide guztiak adina sare. Denon artean sarea osatuko dugula azalduko diegu. Lehenengo, katekistak, Jesusen izenean, banan-banan deituko ditu beren izenez, hauxe esanez: (Mutiko edo neskatoaren izena), **“zatoz eta jarraitu nire atzetik”**. Bigarrenik, neskato edo mutiko bakoitzak hauxe erantzuko du: **“bai, zure taldeko kide izan nahi dut”**. Mutiko edo neskatoak sare bat hartuko du, bere izena duen txartela sarean itsatsiko du eta katekistak klip handi bat emango dio bere sarea Jesusenarekin lot dezan (horrela, banan-banan taldekide guztiekin).



6. Urratsa. **Jesusen taldeko kide gara!** Ukondo-ukituz batez ospatuko dugu. Entrenamenduari ekingo diegu. **Prest zaudete?** (neskato-mutikoak motibatuz, ozen eta gogotsu erantzun dezaten).



7. Urratsa. Talde orok pasahitza du identifikatzeko. Hurrekin elkarrizketan jardungo dugu: **Badakizue zein den Jesusen taldeko kide direnen pasahitza? Gurutzearen seinalea.** Zer esan nahi duen ikusiko dugu gaur, eta abestia ikasiko dugu gogoratzeko.



Hirugarren unea. "Gurutzearen seinalea" abestia

Klikatu irudian bideoa ikusteko



8. Urratsa. "Gurutzearen seinalea" dinamika.

Burua, Jainkoa agurtzen dut pentsatzen, ulertzen eta imajinatzen dudanetik.

Badakit neurekin dagoena.

Bihotza, Jainkoa agurtzen dut maitasunez sentitzen dudanetik.

Nirekin dagoela sentitzen dut.

Ezkerreko besoa, naizen guztiarekin agurtzen dut,

Jainkoarekiko besarkada hasi egiten dut.

Eskuineko besoa, ezer utzi gabe, Jainkoarekiko besarkada itxi egiten dut.



9. Urratsa. Talde handian bilduko gara (lehen taldeka banatu bagara, orain talde handian batuko gara).



10. Urratsa. Talde bakoitzak bere sarea ekarriko du eta denak lotuko ditugu, talde bereko kide garelako irudikatzen.



11. Urratsa. Unai Quirosen "**La señal de la Cruz**" abestia ikasi eta kantatu egingo dugu. Katekistak keinuak irakatsiko dizkie eta, horretarako, txatalez txatal egitea da egokiena (ahal izanez gero, proiektorea duen gelan egin, bestela, abestiaren audioaz eta letraren kopiaz baliatu).



12. Urratsa. Otoitza eta gurutzearen seinalea eginez amaituko dugu saioa.



Laugarren unea. Egindakoa jaso eta laburtu

Osaioari amaiera emateko, otoitza egitea proposatzen dizuegu. Laguntzaileak gidatuko du otoitza, honetara deituz:

- Isilunea egin.
- Otoitza elkarrekin egin (partaideek letra lodiz agertzen dena erantzungo dute).
- "Gaur ikasitakoa..." delakoari bakarka erantzun.

Jesusek maite gaitu, beretzat oso garrantzitsuak gara.

Jesusek ezagutu, maitatu eta estimatu egiten gaitu...

edonon gaudela ere.

Txoriek beren kumeak zaintzen dituzten bezala,

Jesusek zaindu egiten gaitu.

Esan dezagun bere izena: **Jesus!**

Lehenik, begiak itxita ditugula esango dugu, geure bihotzean,

hitzik ahoskatu gabe: **Jesus.**

Orain, ahopeka esango dugu: **Jesus!**

Azkenik ozen: **Jesus!**

"Jauna, ezagutzen nauzu eta neure izenez deitzen.

Eskerrik asko, Jesus adiskide. Neuk ere ezagutzen zaitut".

Gaur ikasitakoa..., hurrek erantzungo dute pare bat hitz esanez.